



EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 11koa, Lanbide Heziketako eta Ikastetxeen zuzendariena, ondorengoak arautzeko: 2011-2012 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako eta Goi-Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako lanpostuen zerrenda osatzeko irizpideak.

1.- Eremua eta xedea

Ebazpen hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo Heziketa Zikloak irakasten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpean dauden ikastetxe publikoetan aplikatzeko da.

Ebazpen honen xedea goian adierazitako ikastetxeen 2011-2012 ikasturterako Lanpostuen Zerrenda osatzeko irizpideak zehaztea da.

2.- Lanpostuen zerrendaren eraginak

Lanpostuen zerrendek 2011-2012 ikasturtea hastean euren eraginpeko ikastetxeek duten egoerari erantzun beharko diote, eta taldeen bilakaera eta horien hizkuntza ezaugarriak aintzat harturik, aurreikus daitezkeen gorabehera guztien isla jaso beharko dute.

Horregatik, Lanpostuen zerrenda 2011-2012 ikasturteko matrikula egin ondoren egingo da, ikastetxe bakoitzean dauden ikasle eta taldeen behin betiko azken kopurua, euren mailak eta hizkuntza-ereduak aintzat hartuta.

3.- Lanpostuen zerrenda osatzen duten lanpostuak.

Lanpostuen zerrendako lanpostuak honako alorretan sailkatuko dira:

- Bigarren Hezkuntzako eta Berariazko Lanbide-Heziketako espezialitate arruntetako lanpostuak
- Hezkuntza-Orientabideko lanpostuak
- Curriculum desberdinak eratzeko lanpostuak
- Zereginen Ikaskuntzako lanpostuak
- Zuzendaritzari Laguntza Emateko lanpostuak
- Urrutiko Batxilergoko Institutuetako lanpostuak
- Eibarko Egoitza-Zentroko "Iharduerak" espezialitateko lanpostuak



4.- Bigarren Hezkuntzako espezialitate arruntetako lanpostuak

4.1.- Ordu-kopurua, guztira. Espezialitate arruntetako lanpostuen definiziorako ordu-kopuru metagarria honakoek osatuta egongo da:

- a) **Klaseak emateko ordu efektiboak:** Ikastetxeko 2011-2012 ikasturteko eskola-ordu erreal guztiak, tutoretza-orduak barne, batzean lortzen den ordu-kopuru arrunta. Batxilergoko, Heziketa Zikloetako eta DBHko azken bi kurtsoetako ordu guztiak zenbatuko dira, bai eta Maisu-Maistren lanpostuen zerrendari egotzi ez zaizkion DBHko lehen bi kurtsoetako orduak ere.
- b) **2011-2012 ikasturterako Katalogo Modularraren Etengabeko Prestakuntzarako aurreikusten diren orduak:** Kopuru hori kalkulatzeko, Hobetuzek 2008 urtean egindako deialdian eman ziren ordu kopuru totala 1,5 aldiz biderkatuko da.
- c) **Ohiz kanpoko ordu-kopurua:** 2011-2012 ikasturtean dagoena. Ordu-kopuru hori honakoek sortua da: zuzendaritzako kargudunen murriztapenek, ordu-murriztapena eskatu duten 60 urtez gorako irakasleek, kalitate-proiektuek, hizkuntza normalizatzeko proiektuek, Europako programek, informazio eta komunikaziorako teknologiek, Elkarbizitzarako proiektuek, lan-arriskuen prebentzioak, Ikastetxeen Zuzendaritzak edo Lanbide Heziketako Zuzendaritzak berariaz baimenduriko bestelako murriztapenek edo unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenak ezartzearen ondorioz sor daitezkeen bestelako murriztapenek.

Ordu-kopuru arrunta kalkulatzeko, honako arauak erabiliko dira:

4.1.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa banatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasturteetako bakoitzean, ikasle-kopuruaren eta ikasturte eta hizkuntza-eredu bateko talde-kopuruaren arteko zatiketaren emaitza 20 edo handiago bada, ikastetxeari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza astean hiru eskola-ordu eta Batxilergoan astean bi eskola-ordu gehiago emango zaizkio dagokion ikasturte eta hizkuntza-ereduko taldeetako bakoitzeko. Ikastetxeak ikasleari zuzeneko arreta egiteko erabiliko ditu ordu horiek: hezkuntza-errefortzuko eskolak emateko eta/edo banatutako taldeetan eskolak emateko.

4.1.2.- Eskola-orduak Lanbide Heziketa berezian.

Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako heziketa-zikloetan eta Hezkuntzari buruzko (LOE) maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babespean ezarritako heziketa-zikloetan.

Hezkuntza Ziklo bakoitzean gehienez ere zenbatu daitezkeen irakastordu-kopurua ondorengo atalak gehitzearen arabera zehaztuko da:



- a) Heziketa-zikloko moduluetan zuzenean emandako irakastorduak (“oinarria/base” zutabea).
- b) Heziketa-zikloko irakasleen espezialitate batzuetan irakasleei laguntzeko orduak, betiere prozeduren zailtasuna eta arriskuak (“K.O./C.G.” zutabea) kontuan hartuta, III. eranskinean azaltzen diren irizpideen arabera.
- c) Ikasleek kasuan kasuko sektoreko enpresetan egin behar egin behar duten Lantokiko Prestakuntzako moduluko kudeaketan eta tutoretzan emandako orduak. Ordu horiek ikastetxeak banatuko ditu gaitasun-unitateei lotutako zikloko lanbide-moduluetan irakasgaitasuna duten irakasleen espezialitateen artean. Orduak egozteko, parametro hauek hartuko dira kontuan: 2. mailako ikasleak: ikasle 1etik 5era, irakasle-ordu bat; 6 ikasletik 11ra, 3, irakasle-ordu; 11 ikasle baino gehiago, 6 irakasle-ordu.

Heziketa-ziklo bakoitzak izango duen ordu-kopurua ezberdina da, kasuan kasuko lanbide-profila lortzeko prozeduren arrisku, zailtasun eta konplexutasunaren arabera. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSEren) babesean ezarritako heziketa-zikloetarako, ebazpen honen I. eranskinean ezarri da zein ordu-karga egotziko zaion ziklo bakoitzari; eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko Lege Organikoaren (LOEren) babesean ezarritako zikloetarako, berriz, II. eranskinean. Dena dela, kreditu orokorreko zutabeko (K.O./C.G.) orduak bakar-bakarrik egotziko dira aurreikusten bada taldean 20 ikasle edo gehiago izango direla.

Taldeak eratzeko irizpideak zehazten dituen Ebazpenaren 4.4. puntuan eskatzen dituen baldintzak betetzen direnean, Ikastetxeen Zuzendaritzak edo Lanbide Heziketako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du heziketa-ziklo zehatz batean A eta D erduetako ikasleekin talde misto bat osatzeko. Kasu horietan, ondorengoa izango da ikastetxeko LZ egiteko kontabilizatuko den ordu-kreditua:

- a) Gazelaniaz, ebazpen honen I. edo II. eranskineko “oinarria/base” zutabean zenbatu egingo dira zikloari egotzitako ordu guztiak, kasuan kasukoak.
- b) Euskaraz zenbatuko egingo da eranskin horietako “mistoa/mixto” zutabean zehazten dena.

Bestalde, Departamentuko berezko jarduerak (aktibo eta baliabideekin lotutako jarduera eta eginkizunak) kudeatzeko ordu-dotazio bat esleituko da, eta, heziketa-zikloetan irakastea indartzeko eta ikastetxeko kudeaketalanak egiteko, eta esleitu ere irizpide hauen arabera esleituko da:

- 5 ordu lanbide-familia guztien lehen ziklorako
- 1,5 ordu hurrengoetarako (beste ziklo batzuetarako)

4.1.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. kurtsoko orduak.

Maiatzaren 3ko 2/2007 Lege Organikoak, Hezkuntzarenak, bere zazpigarren xedapen gehigarrian ezarri duenez, Maisu-maistren kidegoko irakasleek haur-hezkuntzan eta lehen



hezkuntzan beteko dituzte beren funtzioak, eta Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleek derrigorrezko bigarren hezkuntzan, batxilergoan eta lanbide-heziketan beteko dituzte beren funtzioak.

Lege horren lehen xedapen iragankorrak, dena den, honako hau ezarri du: derrigorrezko bigarren hezkuntzaren lehen bi kurtsoetako lanpostuei behin betiko atxikitako maisu-maistren kidegoko funtzionarioek denbora mugagabeen jarraitu ahal izango dute lanpostu horietan, eta beren mugikortasuna baliatu ahal izango dute hezkuntza-administrazio bakoitzak finkatzen dituen lanpostu hutsei dagokienez.

Aurreko bi printzipioak betez, hurrengo arauak ezarri dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen bi maileri dagozkien irakastorduak banatzeari dagokionez:

a) DBHko lehen bi kurtsoetako plazek, baldin eta egun maisu-maistren LPZn badaude eta behin betiko destinoa duten irakasleek betetzen badituzte, hurrengo ikasturteko LPZn agertzen jarraitzeko ordu aski izanez gero, maisu-maistren LPZn sartuta jarraituko dute.

Behin betiko destinoa duen maisu-maistra batek betetako lehen bi kurtsoetako plaza batek LPZn jarraitzeko ordu aski baduela ulertuko da, baldin eta 17 irakastordu esleitu ahal bazaizkio, honako hauek kontabilizatuz: bere espezialitateko irakastorduak, dagokion maisu-maistrak, gaikuntza edo habilitazioa dela eta, eman ditzakeen beste espezialitate batzuetako irakastorduak, eta eskolarik gabeko orduak, tutoretzagatik edo murrizketengatik, horietarako eskubiderik izanez gero, edozein arrazoi dela eta: zuzendaritza-kargua, 60 urtez gorakoa, berrikuntza-proiektuak, hizkuntza-normalizazioa, eta abar.

Horretarako, DBHko lehen bi kurtsoetako plaza batean behin betiko destinoa duen maisu-maistra bakoitzari honako hauek esleituko zaizkio: lehenik eta behin, lehen bi kurtsoetako orduak, bere espezialitateari dagozkionak, eta dagozkion eskolarik gabeko orduak; eta bigarrenik, plaza osatzeko behar izanez gero, beste espezialitate batzuetan soberan geratu diren lehen bi kurtsoetako orduak ere; betiere, eragindako irakasleak espezialitate hori emateko gaikuntza edo habilitazioa baldin badu.

Ondorio horietarako, betetzen duten lanpostuko gai edo alorrez bestelakoak esleitu ahal izango zaizkie maisu-maistren kidegoko irakasleei, betiere, dagokien gaikuntza edo habilitazioa baldin badute, otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuak (EHAA, 96-02-15) bere 4.1 artikuluan ezarri duenaren arabera.

b) Ikastetxean behin betiko destinoa duten maisu-maistren plazak eratzeko erabili ez diren lehen bi kurtsoetako orduekin, berriz, honela jokatu da:

1.- Lehenik eta behin, Bigarren Hezkuntzako LPZra pasatuko dira, besterik gabe, dagokion espezialitateko edo kidegoren bateko plazaren batean, ikastetxean bertan, behin betiko destinoa duen Bigarren Hezkuntzako kidegoko irakasleren baten plaza kentzea edo irakasle hori lekuz aldaraztea saihesteko behar diren ordu guztiak.

2.- Ondoren, aztertuko egingo da ea oraindik esleitu gabe dauden orduak aski diren dagokion espezialitateko lehen bi kurtsoetako plaza oso bat eratzeko, espezialitate ezberdinetakoak batu



gabe. Ondorio horretarako, honako hau ulertuko da: plaza bat osatzeko espezialitate-orduen gutxieneko kopurua 17 ordu dela (16 irakastordu eta tutoretza ordu 1). Irizpide hori aplikatuz, berriz, honela jokatu da

- Gutxienez 16 irakastordu izan, eta beraz, lehen bi kurtsoetako plaza oso bat eratzeko aukera ematen duten espezialitateetan, maisu-maistren LPZn eutsiko zaio plaza horri, plaza hutsak eduki ahal izateko, Bigarren Hezkuntzako plazetan atxikitako maisu-maistrak mugikortasun-eskubideaz baliatu ahal izan daitezten.

- Oraindik soberan dauden orduak 16 irakastorduko kopurura iristen ez diren espezialitateetan, aldiz, Bigarren Hezkuntzako LPZra pasatuko dira dauden ordu horiek, dagokion espezialitateko Bigarren Hezkuntzako irakasleek eman ditzaten.

c) Aurreko arauen salbuespenak baimendu ahal izango ditu tokian tokiko Ikastetxeen Lurraldeburutzak, ikastetxeko zuzendaritzak idatziz eskatu ondoren. Eskaria behar bezala justifikatu beharko da, eta eragindako sail edo departamentuei jakinaraziko zaie alde zuzenetik, eta ez die kalterik eragingo ikastetxean behin betiko destinoa duen inongo irakasleren eskubideei.

4.2.- Ikastetxean espezialitate arruntetan guztira zenbat irakasle izango diren zehaztea.

Ikastetxean espezialitate arruntetan guztira zenbat irakasle izango diren honela zehaztuko da:

- Guztira eman beharreko orduak zenbat diren zenbatuko da, honela: ordu-kopuru arrunta, tutoretzako orduak eta ohiz kanpoko orduak batuko dira, 4.1 puntuan zehaztutako definizio eta arauen arabera.
- Guztira eman beharreko ordu-kopurua zati 17 egingo da. Lortzen den emaitza ez bada zenbaki osoa eta hamarrenak 0,5 edo txikiagoak baldin badira, hamarren horiek 0,5eraino biribilduko dira. Hamarrenak 0,5 baino handiagoak baldin badira, hurrengo zenbaki osoraino jota biribilduko da.
- Horrela jardunda lortzen den zenbakia izango da ikastetxean espezialitate arruntetan gehienez ere izan beharreko irakasle kopurua erakutsiko duena. Kopuru horretan ondorengo arloetako irakasleak bakarrik gehitu ahal izango dira, beharrezkoa den kasuetan: erlijioa, Hezkuntza-Orientabidea, curriculum desberdinak eratzea, zuzendaritzari laguntzea eta zereginen ikaskuntza.

4.3.- Irakasleak dauden espezialitateetan banatzea

Ikastetxeari dagozkion irakasleak funtzionamenduko lanpostuen zerrendako espezialitateen arabera banatzeko, era honetan jardungo da:

4.3.1.- Lehenbizi, 4.1 puntuan zehaztutako ordu-zama arrunta banatuko da, kasuan kasuko espezialitate bakoitzari arlo edo gai bakoitzeko orduak emanda, ondorengo arauen arabera:



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasgaietan metatutako orduak dagozkien espezialitateei emango zaizkie, ondorengo taulen arabera:

a) DBHko lehen bi kurtsoetako orduak:

ARLOAK EDO GAIAK	MAISU/MAISTREN ESPEZIALITATEAK
Euskara eta Euskal Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Matematika	Matematika
Atzerriko hizkuntzak	Ingelesa, frantsesa edo alemana (dagokiona)
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	Gizarte Zientziak
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Teknologia	Teknologia
Plastika eta Ikus-Hezkuntza	Plastika Hezkuntza
Musika	Musika
Hiritartasunerako Hezkuntza	Gizarte Zientziak
Erljioa	Erljioa
Erljioen historia eta kultura	Gizarte Zientziak
Hezkuntza-arreta	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Informatika	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Natur Zientziak	Natur Zientziak
Kultura Klasikoa	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Koruko kantua	Musika
Musika eta instrumentuen tailerra	Musika
Eguneroko bizimodurako matematika.	Matematika
Matematikako aplikazioen tailerra	Matematika
Jakien tailerra	Natur Zientziak
Gorputza eta osasuna zaintzeko tail.	Natur Zientziak
Ikus-entzunekoen komunikazioko tail.	Plastika Hezkuntza
Ondare eta herri-kulturako tailerra.	Gizarte Zientziak
Ikerketa historiko-geografiako tailerra	Gizarte Zientziak
Ingurune sozio-kulturala ikertzeko tail.	Gizarte Zientziak
Ipuinen tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Ipuinen tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dramatizazioko tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Dramatizazioko tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Prentsako tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Prentsako tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (gazt)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (eusk)	Euskara eta Euskal Literatura
Ondare zient-teknikoa aztertzekeo tail.	Teknologia
Asmakizun eta makinien tailerra	Teknologia
Gorputz-adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Astronomiako tailerra	Natur Zientziak
Ikerketa zientifikorako hurbilketa	Natur Zientziak
Beste hautazko batzuk	Ez dira espezialitate bati ere esleitu



b) DBHko azken bi kurtsoetako orduak:

ARLOAK EDO GAIAK	2. HEZKUNTZAKO ESPEZIALITATEAK
Euskara eta Euskal Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Matematika	Matematika
Atzerriko hizkuntzak	Ingelesa, frantsesa edo alemana (dagokiona)
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	Geografia eta Historia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Teknologia	Teknologia
Plastika eta Ikus-Hezkuntza	Marrazketa
Musika	Musika
Hiritartasunerako Hezkuntza (DBHO duten ikastetxeetan)	Erdi eta erdi banatuko dira Geografia eta His- toriako eta Filosofiako espezialitateen artean
Hiritartasunerako Hezkuntza (DBHORik ez duten ikastetxeetan)	Geografia eta Historia
Etika eta Gizabide Hezkuntza (DBHO duten ikastetxeetan)	Filosofia
Etika eta Gizabide Hezkuntza (DBHORik ez duten ikastetxeetan)	Geografia eta Historia
Erljioa	Erljioa
Erljioen historia eta kultura (DBHO duten ikastetxeetan)	Erdi eta erdi banatuko dira Geografia eta His- toriako eta Filosofiako espezialitateen artean
Erljioen historia eta kultura (DBHORik ez duten ikastetxeetan)	Geografia eta Historia
Hezkuntza-arreta	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Informatika (*)	1 : Informatika 2 : Teknologia
Natur Zientziak	Fka-Kka eta/edo Biologia (1. oharra ikusi)
Fisika eta Kimika.	Fisika eta Kimika.
Biologia eta Geologia.	Biologia eta Geologia.
Latina	Latina
Kultura Klasikoa	Latina eta/edo grekera (2. oharra ikusi)
Koruko kantua	Musika
Musika eta instrumentuen tailerra	Musika
Eguneroko bizimodurako matematika.	Matematika
Matematikako aplikazioen tailerra	Matematika
Jakien tailerra	Biologia eta Geologia.
Gorputza eta osasuna zaintzeko tail.	Biologia eta Geologia.
Ikus-entzunekoen komunikazioko tail.	Marrazketa.
Ondare eta herri-kulturako tailerra.	Geografia eta Historia
Ikerketa historiko-geografiako tailerra	Geografia eta Historia
Ingurune sozio-kulturala ikertzeko tail.	Geografia eta Historia
Ipuinen tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Ipuinen tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dramatizazioko tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Dramatizazioko tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura



ARLOAK EDO GAIAK	2. HEZKUNTZAKO ESPEZIALITATEAK
Prentsako tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Prentsako tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (gazt)	Gaztelania eta Gaztelaniar Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (eusk)	Euskara eta Euskal Literatura
Ondare zient-teknikoa aztertzeako tail.	Teknologia
Asmakizun eta makinena tailerra	Teknologia
Gorputz-adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Astronomiako tailerra	Fisika eta Kimika.
Ikerketa zientifikorako hurbilketa (*)	1 : Fisika eta Kimika 2 : Biologia eta Geologia
Beste hautazko batzuk	Ez dira espezialitate bati ere esleitu

(*) ikurra duten ikasgaietan, kasuan kasuko orduak lehenbizi aipatzen den espezialitateari emango zaizkio, ikastetxean espezialitate horretako irakasleren bat baldin badago; baina ikastetxean ez baldin badago espezialitate horretako irakaslerik eta bai bigarren espezialitatekoren bat, orduan bigarrenari emango zaizkio. Eta bigarreneko irakaslerik ez badago eta hirugarrenekoa bai, orduan hirugarrenari emango zaizkio, eta horrela hurrenez hurren.

1. OHARRA: Irizpide orokor gisa, natur zientzietako orduak erdi eta erdi banatuko dira fisika eta kimika eta biologia eta geografia espezialitateen artean. Dena den, ikastetxeren batean ez baldin badago espezialitate horietakoren batean behin-betiko destinoa duen irakaslerik, natur zientzietako ordu guztiak besteari atxiki ahal izango zaizkio.

2. OHARRA: Irizpide orokor gisa, kultura klasikoko orduak erdi eta erdi banatuko dira latin eta grekerako espezialitateen artean. Dena den, ikastetxeren batean ez baldin badago espezialitate horietakoren batean behin-betiko destinoa duen irakaslerik, kultura klasikoko ordu guztiak besteari atxiki ahal izango zaizkio.

Batxilergoan, ikasgaietan metatutako orduak dagozkien espezialitateei emango zaizkie, ondorengo taularen arabera:

GAIK	ESPEZIALITATEAK
Alemana	Alemana
Frantsesa	Frantsesa
Ingelesa	Ingelesa
Atzerriko 2. hizkuntza	Alemana, Ingelesa edo frantsesa (dagokiona)
Biologia eta Geologia.	Biologia eta Geologia
Biologia	Biologia eta Geologia
Geologia	Biologia eta Geologia
Lurraren eta ingurumenaren zientziak	Biologia eta Geologia
Fisiologia eta giza anatomia	Biologia eta Geologia
Anatomia aplikatua	Biología y Geología
Marrazketa artistikoa	Marrazketa
Marrazketa Teknikoa.	Marrazketa
Adierazpen Grafiko eta plastikoko tek.	Marrazketa
Diseinua	Marrazketa
Bolumena	Marrazketa



GAIAK	ESPEZIALITATEAK
Ordenagailuz lagundutako Marraz. eta Dis.	Marrazketa
Pintura	Marrazketa
Argazkigintza	Marrazketa
Ikus-entzunezko kultura	Marrazketa
Ekonomia	Ekonomia
Enpresaren ekonomia	Ekonomia
Zuzenbidea	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.	Gorputz Hezkuntza
Gorputz-adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Euskara eta literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Mundu osoko literatura (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Arte eszenikoak (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
XX. mendearen euskal literatura eta espainiar literatura (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Filosofia eta hiritartasuna	Filosofia
Filosofiaren historia	Filosofia
Antropologia soziala	Filosofia
Erlijioa	Erlijioa
Fisika eta Kimika	Fisika eta Kimika
Fisika	Fisika eta Kimika
Kimika	Fisika eta Kimika
Mundu garaikidearentzako zientziak	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Biologia eta Geologiako espezialitateen artean
Laborategiko teknikak	Fisika eta Kimika
Mekanika (*)	1: Fisika eta Kimika. 2: Teknologia 3: Antol. eta fabrikazio mekanikoko proiekt.
Geografia	Geografia eta Historia
Historia	Geografia eta Historia
Mundu garaikidearen historia.	Geografia eta Historia
Artearen Historia (*)	1 : Geografia eta Historia 2 : Marrazketa
Euskal Herriaren Historia	Geografia eta Historia
Grekerak	Grekerak
Latina	Latina
Gaztelania eta Literatura	Gaztelania eta Literatura
XX. mendearen euskal literatura eta espainiar literatura (gazteleraz)	Gaztelania eta Literatura
Arte eszenikoak (gazteleraz)	Gaztelania eta Literatura
Mundu osoko literatura (gazteleraz)	Gaztelania eta Literatura
Matematika	Matematika
Matematika, gizarte zientziak	Matematika
Aljebra eta kalkulua	Matematika
Musikaren analisia	Musika
Musikaren eta dantzaren historia	Musika



GAIAK	ESPEZIALITATEAK
Musika-hizkuntza eta praktika	Musika
Musika-informatika	Musika
Industria-teknologia	Teknologia
Adm.- eta kudeaketako prozesuak	Enpresen administrazioa
Elektronika	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Teknologiako espezialitateen artean
Elektroteknia	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Teknologiako espezialitateen artean
Inform. eta komunikazioaren tekn.	Informatika
Psikologia eta Soziologia	1.- Hezkuntza-Orientabidea 2.- Filosofia

(*) ikurra duten ikasgaietan, kasuan kasuko orduak lehenbizi aipatzen den espezialitateari emango zaizkio, ikastetxean espezialitate horretako irakasleren bat baldin badago; baina ikastetxean ez baldin badago espezialitate horretako irakaslerik eta bai bigarren espezialitatekoren bat, orduan bigarrenari emango zaizkio. Eta bigarreneko irakaslerik ez badago eta hirugarrenekoa bai, orduan hirugarrenari emango zaizkio, eta horrela hurrenez hurren.

Espezialitate bati espreski lotu ez diren ikasgaien orduak eta ikastetxean ematen ez diren espezialitateei lotutakoak, Ebazpen honetako 4.4. atalean araututako “ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” finkatzeko erabiliko dira. Atal horrek adierazten duen legez, ikastetxeko zuzendaritza taldeari dagokio lanpostu horiek eratzea eta, ondorioz, ordu horiek espezialitate bati edo besteari lotzea, ikastetxe bakoitzaren ezaugarri propioen arabera.

Heziketa-zikloetan, moduluetan batzen diren orduak dagozkien espezialitateei egotziko zaizkie, ebazpen honetako I., II. eranskinetan ezarritakoari jarraiki.

4.3.2.- DBHko eta Batxikergoko espezialitate bakoitzari esleitu ahal zaizkion ohiko ordu guztiak (euskarazko eta gaztelaniazko orduak batzea) kalkulatu ondoren, 17 ordu baldin badaude, edo gainontzekoa 12 ordukoa edo gehiago denean, lanpostu bat esleituko zaio espezialitate bakoitzari, betiere gainontzeko ordu horiek espezialitate baliokideetako orduekin osatzerik baldin badago. HE1eko eta HE2ko lanpostuetan ateratzen diren lanpostuak banatzeko, 4.5. puntuan xedatutakoaren arabera jokatu da.

4.3.3. Lanbide Heziketako espezialitateetan, espezialitate eta hizkuntza-eskakizuna bakoitzari dagokion ordu-karga egotzi eta gero, plaza bat esleituko da 17 orduko edo 12 ordutik gorako hondarreko, beti ere hordar hori osatu ahal bada lanbide-familia bereko gaitasun-unitateei lotutako lanbide-modulutako irakaskuntza-eskumenak egotzita dituzten espezialitateetako orduekin.

4.3.4.- Latin eta Grekerako orduak osatutako lanpostuek “Kultura Klasiko”ko lanpostuak izena hartuko dute, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuak hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.



4.3.5.- Gainontzeko plazak, espezialitate arruntetan ikastetxeak duen irakasle kopuru osora iritsi arte, 4.2. puntuaren zehaztutakoa hain zuzen ere, “Ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” atalean zenbatuko dira.

4.4.- “Ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” epigrafeko lanpostuen definizioa

“Ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” izeneko epigrafean ageri diren lanpostuen zerrendako lanpostuak nola moldatu ikastetxeek erabaki beharko dute, baina garaiz egin beharko dute hori, lanpostu horiek ikasturte hasierako konkursiloan behar bezala definituta eta moldatuta egon daitezen.

Lanpostu horiek moldatzeko eskumena ikastetxeko zuzendaritza-taldeak izango du, kasuan kasuko didaktikako departamentuen iritzia zein den jakin ostean. Dena den, jarraitu beharreko irizpideetako bat koherentzia pedagogiko ahalik eta handienarekin jardutearena izango da, eta lanpostuak moldatzerakoan, gaiak ahalik eta berdinenak izango dira, eta gai horiek, gainera, curriculumari dagokionez, ahalik eta gertuen egon beharko dute.

Lanpostuen osakeran espezialitate bat baino gehiagoko gaiak sartzen baldin badira, lanpostu horren definizioan garbi adierazi beharko da lanpostua zein espezialitatek edo gaik osatzen duten, nahiz eta lanpostua espezialitate jakin bati atxikita egon, ondorengo arauak jarraituta:

- a) Orokorrean, lanpostua osatzen duten espezialitateen artetik ordu gehien duen espezialitateari emango zaio lanpostua, ondorengo paragrafoetako salbuespenetan izan ezik:
- b) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean atzerriko hizkuntza bat ere ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio. Atzerriko hizkuntza bi edo gehiagotako orduak osatzen baldin badute lanpostua, ordu gehien duen hizkuntzari emango zaio lanpostua.
- c) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean grekera ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio, latina ere baduen kasuetan izan ezik; kasu horretan lanpostua kultura klasikokoa izango da.
- d) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean latina ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio, grekera ere baduen kasuetan izan ezik; kasu horretan, c) puntuaren esaten den moduan, lanpostua kultura klasikokoa izango da.
- e) Lanpostu bat atzerriko hizkuntza batez eta Latina edota Grekera espezialitateko orduekin osatuta egongo balitz, ordu kopuru gehien dituen espezialitateari lotuko da plaza hori.
- f) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean Hezkuntza Zikloetako modulu-tako orduak ageri baldin badira, lanpostua beti espezialitate horri emateak lehentasuna izango du.



4.5.- Eratzen diren lanpostuei hizkuntza-eskakizuna jartzea

Espezialitate bakoitzak zenbateko ordu-zama izango duen erabaki ostean, ordu horiek euskara eta gaztelaniaren artean banatuko dira, ondorengo arauekin bat:

- a) D ereduko orduak euskaraz izango dira.
- b) A ereduko orduak gaztelaniaz izango dira, euskara eta euskal literatura ikasgaiko orduak izan ezik, horiek euskaraz emango baitira.
- c) DBHko B ereduko orduak hizkuntza bakoitzari banatzeari dagokionez, ordu horiek 2011-2012 ikasturtean zein hizkuntzatan emango diren kontuan izanda banatuko dira.
- d) Lanbide Heziketa Espezifikoko irakaskuntzako orduak zein hizkuntzatan eman jakiteko, 2011-2012 ikasturtean zikloa zein hizkuntzatan emango den hartuko da kontuan.

Hizkuntza bakoitzean guztira zenbat ordu diren jakin ostean, lanpostuen hizkuntza-eskakizuna urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuan xedatutakoaren arabera emango da; dekretu horrek hizkuntza-eskakizunen martxoaren 9ko 47/93 Dekretua aldatu zuen. Esandakoaren ondorioz:

- a) Ordu guztiak gaztelaniakoak dituzten lanpostuak 1. hizkuntza eskakizunekoak izango dira, eta ez dute derrigortasunezko eperik izango.

Beraz, gaztelaniako espezialitate batean 17 ordu edo gehiago baldin badaude, espezialitate horretako 1HEko lanpostu bat (eperik gabekoa) sortuko da, nahiz eta ikastetxeak lanpostu hori 2HEekoa izateko eskatu, edo ordu horiek beste lanpostu batzuetan sartzeko eskatu, euskarazko orduekin nahastuta, eta horrela lanpostu guztiak 2HEekoak izan. Azkenengo aukera hori baimentzeko, ondorengo bi baldintzak bete beharko dira, aldi berean:

1.- Behin-betiko destinoa duen irakaslerik ez egotea eperik gabeko 1HEeko lanpostu horretan. Era horretako irakasleren bat baldin badago, lanpostua espezialitate eta hizkuntza eskakizun horrekin aterako da, nahiz eta eragiten dion irakaslea ikasturte horretan ez egon ikastetxean edozein arrazoi dela eta (Irale, zerbitzu eginkizunak...), edo ikastetxean egonda ere, beste eginkizun batzuk izan behar baditu (curriculum desberdinak eratzea, dena delako proiektuak, beste espezialitate bateko eskolak ematea, e.a.).

2.- Guztiz beharrezkoa izatea ordu horiek erabiltzea (edo ordu horien zati bat) ikastetxean behin-betiko destinoa duen irakasle baten 2HEeko lanpostua mantentzeko.

- b) Euskarako orduak baino izango ez dituzten lanpostuak 2HEekoak izango dira (epea amaituta dutenak) d) lerroaldian aipatzen diren salbuespenetan izan ezik.

- c) Euskarako eta gaztelaniako orduak dituzten lanpostuak 2HEekoak izango dira (epea amaituta dutenak), d) lerroaldian aipatzen diren salbuespenetan izan ezik.

- d) Urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian esaten denarekin bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino irakasten ez duten ikastetxeetako gaztelania eta atzerriko hizkuntzako lanpostuak epea amaituta duten 1HEeko lanpostuak izango dira, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte, aldi berean:



1.- Lanpostu horiek epea beteta duten 1HEekoak izatea azaroaren 3ko 577/2009 Dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendaren arabera (EHAA, 2009-11-09).

2.- Lanpostu horiek behin-betiko destinoa duen baina oraindik 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzerik lortu ez duen irakasle batek betetakoak izatea.

4.6.- Lanpostu batzuetarako eskatuko den ingeleseko edo frantseseko titulazioa.

Irakasgaiak ingelesez edo frantsesez ematen dituzten ikastetxeetan, orduren bat hizkuntza horietan eman behar duten lanpostuei, dagokien espezialitateaz eta hizkuntza-eskakizunaz gain, honako betekizun hauetatik bat, gutxienez, ezarriko zaie: Ingeleseko edo Frantseseko espezialitatea; Ingeles edo Frantses Filologian lizentziatura edo titulazio baliokidea; Hizkuntza Eskola Ofizialeko Maila Aurreratuko Agiria edo agiri baliokidea.

5.- Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostuak

5.1.- Hezkuntza-Orientabideko lanpostu-kopurua zehaztea.

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta/edo Batxilergoa zuzeneko irakaskuntza gisa duten ikastetxe publiko guztietan, Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostu bat egongo da.

b) Hezkuntza-Orientabide espezialitateko beste lanpostu bat ere izango dute aurreko atalean aipatzen diren ikastetxeek, baldin eta ondorengo baldintzetakoren bat betetzen badute:

– 700 ikasle baino gehiago izatea.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta/edo Batxilergoko irakaskuntza bi udalerritan ematea.

5.2.- Hezkuntza-Orientabideko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea.

Urtarrilaren 18ko 6/2000 dekretuko 4. artikuluan xedatutakoaz bat (dekretu horrek martxoaren 9ko 47/93 dekretua, hizkuntza-eskakizunei buruzkoa, aldatu zuen), Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna ondorengo irizpideen arabera zehaztuko da:

a) Irakasleak A ereduko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-eperik gabekoak.

b) Irakasleak D ereduko talderen bateko ikasleez ere arduratu behar baldin badu, 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-epela beteta dutenak.

c) Irakasleak B ereduko talderen bateko ikasleez ere arduratu behar baldin badu, eta ez badu D ereduko ikasleez arduratu behar, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-epela beteta dutenak.



6.- Curriculum Desberdinak Eratzeko espezialitateetako lanpostuak

6.1.- Curriculum desberdinak eratzeko lanpostu-kopurua zehaztea.

2011-2012 ikasturterako aurreikusitako curriculum derberdinak eratzeko talde bakoitzeko, hizkuntza eta gizarte arloko lanpostu bat eta zientzia eta teknologiaren arloko beste bat sortuko dira.

Ikastetxeko beste espezialitateren bateko irakasle batek beteko duela aurreikusten bada ere, lanpostua Curriculum Desberdinak plaza bezala agertuko da LZn. Ez da agertuko aipatutako irakasleak duen espezialitatearekin.

6.2.- Curriculum desberdinak eratzeko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea.

Urtarrilaren 18ko 6/2000 dekretuko 4. artikuluan xedatutakoaz bat (dekretu horrek martxoaren 9ko 47/93 dekretua, hizkuntza-eskakizunei buruzkoa, aldatu zuen), curriculum ezberdinak eratzeko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna ondorengo irizpideen arabera zehaztuko da:

- a) Irakasleak A ereduko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 1 hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-epetik gabekoak.
- b) Irakasleak D ereduko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak izango dira, berehalako derrigortasun-epa dutenak (epaia betetakoak).
- c) Irakasleak beste batzuen artean B ereduko ikasleez ere arduratu behar badu, irakaslearen hizkuntza-eskakizuna arlo bakoitzean, zientzia eta teknikakoan eta hizkuntza eta gizarte arlokoan, erabilitako hizkuntzara egokituko da.

7.- Zereginen Ikaskuntzarako Gela izeneko espezialitaterako lanpostuak

7.1.- Zereginen Ikaskuntzarako Gela izeneko espezialitaterako lanpostu-kopurua zehaztea.

2011-2012 ikasturtean lanean izango direla aurreikusitako Zereginen Ikaskuntzarako Gela bakoitzeko, lanpostuen zerrendan espezialitate horretako lanpostu bat egongo da, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegotik beteko da lanpostu hori.

Lanpostua Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitate zehatz bati esleituko zaio, Ikastetxeen Zuzendaritzako Lurralde Buruak horrela erabakitzen duenean. Aldez aurretik Ikastetxeko zuzendaritzak eskaera egingo du eta ikastetxeari dagokion Berritzeguneak eskaera onartzearen egokitasunari buruzko txostena eman behar izango du. Osterantzean, lanpostua Zereginen Ikaskuntza plaza bezala besterik ez da agertuko LZn.



7.2.- Zereginen Ikaskuntzarako Gelako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea.

Zereginen Ikaskuntzarako Gelako lanpostuek 1. Hizkuntza-eskakizuna izango dute, derrigortasun-eperik gabe, baldin eta irakasleak A ereduko ikasleekin bakarrik egin behar badu lana. B eta/edo D ereduko ikasleekin ere egin behar badu lana, lanpostua 2. hizkuntza eskakizunekoa izango da, epea beteta duena.

8.- Zuzendaritzari Laguntza Emateko lanpostuak

Zuzendaritzari laguntza emateko lanpostu guztiak mantenduko dira, lan-legepeko langileentzat eta Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle berezientzat gordetakoak, hain zuzen ere azaroaren 2ko 279/2010 Dekretuan onartutako lanpostuen zerrendan ageri zirenak (EHAA, 2010-11-10), baina baldin eta behin-betiko destinoa duen irakasle batek beteta jarraitzen badu lanpostu horrek.

Ez da espezialitate honetako beste lanposturik gehituko ikastetxe batean ere.

9.- Urrutiko Batxilergoko Institutuetako eta Eibarko Egoitza-Zentroko lanpostuak

Urrutiko Batxilergoko Institutuetako eta Eibarko Egoitza-Zentroko lanpostu guztiak mantenduko dira, hain zuzen ere azaroaren 2ko 279/2010 Dekretuan onartutako lanpostuen zerrendan ageri zirenak (EHAA, 2010-11-10). Ez da espezialitate honetako beste lanposturik gehituko ikastetxe hauetako lanpostuen zerrendan.

Ikastetxe horietako ikasle euskaldunen eskaerei behar den moduan aurre egiteko, Urrutiko Batxilergoko Institutuetan eta Eibarko Egoitza Zentruan, espezialitate batean plaza bat baino gehiago agertzen denean LZn, euretariko bat gutxienez 2.HE betea motakoa izango da. Plaza bakar bateko espezialitateetan, plaza hori 2.HE betea motakoa izango da ere, baldin eta bakantea bada edo 2.HE gaindituta dute behin betiko irakasleek okupatzen badu.

10.- Lanpostua funtzionarioek edo lan-legepeko langileek betetzeko irizpideak

Ikastetxeak ematen duen edozein espezialitatean, lanpostua funtzionarioari edo lan-legepeko langileari emateko lehenespena ondorengoa izango da:

1.- Ikastetxean espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako lan-legepeko langileren bat baldin badago, lanpostua lan-legepeko langileentzat izango da.

2.- Espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako behin betiko funtzionarioen bat baldin badago, hain zuzen ere Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle berezien kidegokoa, lanpostua kidego horretako norbaitek bete beharko du.



3.- Gainontzeko kasuetan, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegokoek bete beharko dituzte lanpostuak, kasuan kasuko espezialitatearen arabera.

11.- EHAAn argitaratuko diren lanpostuak (ikastetxearen lanpostu zerrenda ofiziala)

EHAAn argitaratuko den lanpostuen zerrendako lanpostu kopuruak ezin izango du aurrekontuan ezarritako kupoa gainditu. Hori dela eta, ikastetxe batek funtzionatzeko beharrezkoa den lanpostuen zerrenda zehaztu eta gero, EHAAn ondorengo lanpostuak argitaratuko dira:

1.- 2011-2012 ikasturteko funtzionamenduko lanpostuen zerrendan ageri diren lanpostu guztiak, baldin eta kasuan kasuko espezialitatean eskolak emateko gutxienez 12 ordu baldin badituzte. Ordu horiek kalkulatzeko, gehitu egin beharko dira klaseak emateko ordu-efektibo guztiak, (4.1.a atalean zehaztutakoak), eta Katalogo Modularrean Etengabeko Prestakuntzarako aurreikusten diren ordu kopuruaren %50a, (4.1.b. atalean zehaztutakoaren %50a).

Gutxienez 12 ordu ingelesez edo frantsesez eman behar dituzten lanpostuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira honako betekizun hauetatik bat: Ingeleseko edo Frantseseko espezialitatea; Ingeles edo Frantses Filologian lizentziatura edo titulazio baliokidea; Hizkuntza Eskola Ofizialeko Maila Aurreratuko Agiria edo agiri baliokidea.

2.- Espezialitateko 12 ordu errealeko irakatsialdia betetzen ez duten arren, ondorengo baldintza guztiak betetzen dituzten lanpostuak:

a) Lanpostu horiei atxikituta dagoen irakasleren batekin beteta daude.

b) 2011-2012 ikasturteko funtzionamenduko L.Z.n, espezialitate, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data berberekin mantentzen dira.

3.- “Ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” izeneko atalean ageri diren lanpostuak, hain zuzen ere aurrekontuan ezarritako kupoa bete arte argitaratu daitezkeenak; dena den, ikastetxe guztietan, ikastetxeko funtzionamenduko lanpostuen zerrendaren eta argitaratutako lanpostuen artean proportzio bera ezarriko da. Argitaratutako lanpostuen zerrendan, lanpostu horien izena “Ikastetxeak moldatu beharreko lanpostuak” izango da, baina ez da zehaztuko non eta nola egokituko diren.

4.- Atal honetan xedatutakoa baita aplikatuko da ere Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika Kontserbatorioetako eta Arte Eskolako Lanpostu Zerrendak egitean.



12.- Irakaskuntzak banatu edo integratzeko prozesu baten ondorioz sortutako lanpostuak.

Ikastetxe batean irakaskuntza batzuk kentzen badira eta gero beste ikastetxe batean integratu, orduan irakaskuntza horietako lanpostuak ikastetxe igorlearen lanpostu-zerrendan kenduko dira eta ikastetxe hartzailearen lanpostu-zerrendan integratuko. Lanpostuak zehazteko, irizpide hauk aplikatuko dira:

- 1.- Zehaztu egingo da zenbat ikasle matrikulatu 2011-2012 ikasturtean ikastetxe igorlean banatutako irakaskuntzetan eta zenbat ikasletako taldeak egingo diren ikasgai bakoitzean.
- 2.- Zehaztu egingo da zenbat irakastordu izango dituzten talde horiek.
- 3.- Espezialitate bakoitzean ikastetxe igorletik kendu eta ikastetxe hartzailean lanpostu bat integratuko da espezialitate horretako 17 irakastorduko edo gainerako 12 ordu edo gehiagoko ordu-multzo bakoitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 11a

IKASTETXEEN
ZUZENDARIA

LANBIDE HEZIKETAKO
ZUZENDARIA

Izp.: Marcelino Hernández Garduño

Izp.: María José Madariaga Rola